




**IKASBIDE
KULTUR
ELKARTEAN**

Isabel II, Hirib. 15 behea
Tel. - Fax 943 457 107
20011 DONOSTIA
www.ikasbide-kultur-elkartea.eus

EUSKAL LITERATURAZ GOZA!



Yurre Ugarte Rodriguez

Lilurabera

Zortzi narrazio hauetan mugitzen diren pertsonaiak bezain protagonista dira haietan ageri diren egoera eta bizimoduak. Eguneroko bizitzan ez hondoratzeko lilura helduleku bakarra duten pertsonaiak, edota behinola lilurak baldintzatuta-ko bizimoduak daramatzatenak. Irakurleak etengabean sentituko dituen taupadak bihotz narratibo indartsu batetik datoz: zentzumen eta jakin-minaren gose-egarria bizimodu bilakatzen da liburu honetako zazpi ipuinetan eta kolofoi lana egiten duen «bizi kondaira literario-musikal»ean.

Pertsonaia guztiak dira pop kulturaren alabak; haientzat, argazkiak, abestiak, musika, artegintza edo estetika ez dira atsegin handiagoz edo txikiagoz dastatzen den zerbait. Bizitzeko era bat dira. Munduan egoteko eta mundua ulertzeko modu bat. Arteak eta bilaketa estetiko suharrak zorrotutako zentzumenek bizi dituzte ipuinotako pertsonaiak, eta gainera horri esker egiten dute baldintza makurrenetan ere aurrera.

Alabari aita nor duen konfesatu behar dion kazetaria, nerabegaroko adiskidearen eraginaz ohartzten den argazkilaria, kultur kudeatzaile bihurtutako iraganeko artista, etxerik gabe geratu den diseinatzaile ohia, pop-ari buruzko tesia aurkeztera doan doktoregaia eta gainerakoak biltzen dituen Yurre Ugarteren ahotsak irakurlea guttiz inplikatu du, luzarorako..

Yurre Ugarte Rodriguez (Tolosa, 1965) gipuzkoar idazle eta gidoilaria da. Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritza ikasi zuen. Londresen zinema errealizazioa, gidoigintza eta argazkilaritza ikasi zituen, eta han idatzi eta zuzendu zituen lehendabiziko film laburrak. 1990an hasi zen gidoigintza profesionalean. Geroztik gidoiak idatzi ditu hainbat telebista katerako fikzioaren alorrean: ETB, Tele-5, TV-3, Telemadrid. Azken urteetan antzezlanen produkzioan ibili bada ere, marrazki bizidunetako luzemetrai baterako gidoia prestatzen ari da orain. 1998tik Irunen bizi da.



2022ko Martxoaren 7ean 19:00etatik-20:00etara

IKASBIDE KULTUR ELKARTEAN (Isabel II, 15 b.)

Edu Zabalak zuzendua.

Yurre Ugarte bertan izango da